

EBAZPENA



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025-6-2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA



>>>

EBAZPEN
PROPOSAMENA

HEGO EUSKAL HERRIRAKO BURUJABETZA ETA JUSTIZIA SOZIALEKO MARKO BERRIA HELBURU

ELAk, klase-sindikatu abertzale den aldetik, betidanik parte hartu du Hego Euskal Herriko autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta sozial nagusietan. 1931ko Lizarrako Estatututik gaur arte, defendatu du autogobernu hori ezin dela izan Espainiako Estatuaren barruko dezentralizazio administratibo hutsa, baizik eta tresna eraldatzailea izan behar duela, Euskal Herriaren eskubide sozial, laboral, kultural eta politikoak bermatzeko gai dena. Tresna horretatik harago, gure apustu estrategikoa —aurreko Kongresuan zehaztu genuen bezala— gehiengo sozialaren zerbitzura dagoen Euskal Errepublika burujabea da.

Indarrean dagoen eredu autonomikoaren egiturazko mugak sobera frogatuta geratu dira. Gernikako Estatutua (1979) eta Lorafna (1982) sistematikoki desnaturalizatu dituzte; halaxe salatu izan dugu 90eko hamarkadatik hona. 1981eko Estatu kolpearen osteko LOAParen inposizioak, Konstituzio Auzitegiaren hainbat epaik, eta legegintza- eta administrazio-praktika jarraitu batek zeharo murriztu dute indarrean dauden marko juridikoen edukia. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “La erosión silenciosa” liburuak berresten du eskumenak nola hustu dituzten. Gauza bera esan daiteke Nafarroari buruz. Eraitza begi-bistakoa da: formalki eskumen osoa duen eremuetan ere —hala nola osasungintzan, hezkuntzan edo funtzio publikoan—, ahalmen hori mugatua izan da de facto. Egoera honek erantzun politiko argia eskatzen du.

ELAk baztertu egin du zenbait eragileren ideia, etorkizuneko estatus politikoa egungo markoaren hobekuntza arin batera mugatu behar dela dioena. Hainbat hamarkadako ez-betetzeen eta erregresioen ondoren, esparru politiko berria ezin da izan indarrean dagoen ereduaren berrikuspen hutsa, ezta eskumenen eguneratze hutsa ere. Ezinbestekoa da Estatuaren aldebakarreko inboluzio edo esku-sartze oro eragotziko duten berme eraginkorrak izatea.

Estatusari buruzko eztabaida hori, gainera, Gasteizko Legebiltzarrean burujabetzaren aldeko gehiengo politiko abertzalea nagusi den unean ari da garatzen. Gure ikuspuntutik, gehiengo hori ezin dute baldintzatu gutxiengo sozial eta politiko bat ordezkatzeko alderdiek. Onartezina da indar abertzale batzuek PSEri Madrilen negoziatuko denari betoa ezartzeko gaitasuna ematea. ELAren posizioa da Gasteizko Legebiltzarretik irteten den proposamenak gehiengo abertzalearen agindu demokratikoari zintzo erantzun behar diola.

Nafarroan are larriagoak dira egungo autogobernu esparruaren gabezia demokratikoak. Lorafna 1982an onartu zen, herri-erreferendumik egin gabe, eta horrek zilegitasun-defizita sortzen du, oraindik ere irauten duena. Horri euskararen egoera gehitu behar zaio, bere egungo estatusa mugatua eta diskriminatzailea baita, Nafarroako lurralde osoan ofizialtasunaren aitortza erabatekoa ez duelako.

ELAren aldarria da Hego Euskal Herriko marko politiko berria oinarritik eraiki behar dela, erakunde sozialen eta herritarren parte hartze zabal eta aktiboarekin. Benetako arriskua dago alderdi politiko batzuetako eliteen artean proposamenak eta akordioak modu opakuan erabakitzeak, gizartea aintzat hartu gabe. Noraez horren aurrean, ELAk ez du onartzen prozesuaren kudeaketa elitista bat; benetan demokratikoa den eredu bat aldarrikatzen du,

non langileriak eta klase herrikoiak protagonista izango diren eta beren nahiak eta interesak baliarazi ahal izango dituzten.

Gure proposamena honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Berrespen demokratikoa: esparru berri oro herri-bozketaren bidez berretsi behar da. Eskakizun hori bereziki garrantzitsua da Nafarroan, egungo erregimena ez baitzen berretsi.
- Erabakitzeko eskubidea: ELAk Euskal Herria bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea duen subjektu politiko gisa aitortzearen alde egiten du, Estatu independente izateko aukera barne.
- Lan-harremanen eta gizarte-babesaren berezko esparrua: ELAk lan- eta gizarte-gaie-
tan eskumen legegile osoa, babes eta gizarte segurantzako tresna guztiak, sektore publikoko langileen lan baldintzak arautzeko ahalmena eta negoziazio kolektiborako euskal esparruaren onarpena eskatzen ditu.
- Subiranotasun fiskala eta ekonomikoa: gehiengo sozialen zerbitzura izango diren politika fiskalak, aurrekontu-politikak eta politika ekonomikoak diseinatzeko eskumen osoa, kapitalaren eta Estatuaren interesen menpe egon gabe.
- Euskal Herria nazio gisa aitortzea eta euskararen ofizialtasun osoa bere lurralde osoan, normalizaziorako berme eraginkorrekin.
- Berme instituzionalak eta Estatuak esku ez hartzeko klausulak; zehazki mugatu behar dira eskumen eskusiboak eta gatazka juridiko eta politikoak ebazteko mekanismo propioak.
- Demokrazia parte-hartzailea: prozesu politiko ireki eta anitza, hasieratik gizarte antola-
tuaren parte-hartze erreal eta aktiboa duena, hau da, ez dena mugatuko azken berres-
pen hutsera.
- Bokazio konfederala: Euskal Herriko lurralde guztien arteko lankidetzatresnak ahalbi-
detuko dituen marko juridiko eta instituzionalerantz irekitzea.

Soberanismo sozialaren alde egiten duen sindikatu gisa, eraldaketa politikoa eraldaketa sozial sakonen eskutik joan behar dela berretsi du ELAk. Horregatik, lehentasuna dute gizarte- eta lan-eskaerak —lan-legedi propioa, euskal gizarte-segurantza, zerga-politika bir-
banatzailea eta abar—. Gure horizonte politikoak zentzua du langile-klasearen eta gehiengo sozialaren behar zehatzei erantzuten badie.

ELAk, bere ibilbideari eutsiz, konpromiso hauek hartu ditu:

- Erabakitzeko eskubidea eta eskubide sozial eta laboralak prozesuaren erdigunean kokatzeko mobilizazio soziala bultzatzea.
- Barne eztabaida egituratua sustatzea sindikatuan, bereziki delegatuei zuzendutako prestakuntza tresnekin.
- Indar politiko abertzaleei eragiteko estrategia bat ezartzea, haien proposamenei langi-
leriaren asmo sozial eta nazionalekin bat egin dezaten.
- Euskal Herriaren etorkizun politikoaren ikuspegi eraldatzailea partekatzen duten beste eragile sindikal eta sozialekin koordinatu eta indarrak batzea.



- Eztabaida instituzional eta politikorako proposamen juridiko, tekniko eta sozialak egi-
tea eta plazaratzea.

ELAk ez du onartuko egungo estatusaren azaleko aldaketarik. Ez dugu ontzat emango edozein akordio, sinatzen duenak sinatzen duela ere. Euskal Herriaren aitortza nazionalean aurrera egingo duen, autogobernua modu erreal eta bermatuan areagotuko duen eta langile-klasearen interesei mesede egingo dien marko berri baten alde egiten dugu. Gure konpromisoa da herri proiektu burujabe, feminista, euskaldun, anitz eta justu batekin.

